

# ek!

**eta kitto!**  
euskara elkarte

2024ko irailak 20 · 1325 zenbakia



## BETIRA ARTE MAESTRO

# 2x189€

MÓ BETAURREKO PROGRESIBOAK

BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE  
MILA MODELO BAINO GEHIAGO

Kontuak eptikaz konpaimaren epagarriak.

EPS 9028



## MULTIÓPTICAS

943 20 05 22  
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez

[www.multiópticas.com](http://www.multiópticas.com)





# osasun gida

## Dentistak

**Odontologia  
Biologikoa**

**Miren Albistegi Sojo**

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52  
malbistegi@gmail.com

**GASTESI  
Hortz-Klinika**

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta preventzioa / PADI  
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
779 kolegiatarak  
- FISIOTERAPIA  
- KIBUE, LENTOKA  
- Puzatzen dira TESTURAK  
- K. ortotek + K. FISIOTERAPIA  
**ABERASTUA, 20**  
Tel: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com



Esku onetan egotearen  
ziurtasuna,  
inon ere zure osasunaz gure,  
Eskatzen dugun zure osasunaz gure.

**bista eder**  
clínica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82      bista eder, 19  
www.bistader.es



**IRAZABAL**  
clínica dental

**Irribarreetan adituak**  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.  
Tfnos. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

## Ginekologia

*Dra. Laura Martinez*  *Dr. Alejandro Recas*

**GINECOLOGÍA  
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetriziaz
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 85      San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com  
dra.martinezgallardo@gmail.com  
www.ginecologiaelbar.com

Errebal, No. 2001001

**Amaia & Esnaola**  
ODONTOLÓGIA

Ferrniz Calbeton 10 - 1. esk. Eibar  
943 20 72 17 | 660 42 28 08  
amaiaesnaolaodontologia.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

**Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 843-702886**



**Maitane G. Iñiguez**  
Odontologian Lizentziatua  
R.N. 379

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)  
943 537 076 - 688 684 808  
info@elbarclinicadental.com  
www.elbarclinicadental.com



**Unzaga Plaza**  
Hartz Klinika - Clinica Dental

M. Orozco Ventura doktorea  
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar  
Tel.: 943 70 23 85

 **943-206776**

# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Walter Tuzzeo soinu-teknikari eta musikaria omenduko dute hilaren 28an, zapatuan, Untzagan. Sizilian jaiotako eibartarrarekin harremana izan duten hainbat eta hainbat musikarik hartuko dute parte 18:30ean hasiko den emanaldi berezian, herriko musikari hainbeste eman dion maisu handia gogoratzeko.



#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Bea Lahidalga

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Eskutitzak



### Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

## Hortik esanak



Ez daukagu himnorik, ez daukagu selekziorik... Askotan, ez daukagunak gehiago definitzen gaitu daukagunak baino. Ibili-ibilian, euskararik funtzionalena gatzelania dela amaituko dugun? Sintaxia sinplifikatu behar dela esaten ari dira batzuk, eta Amuriza, berriz, aditza sinplifikatu behar dela esaten aritu da. Amurizarekin harrিতuta nago, inork ez baitio erantzun. Zer esaten ari gara, orde, "nik zuek atzo ikusi" esaten hasi behar dugula, western filmetan indiarak nola? Hortik hartu behar zaio zentzua esaldiari.

JON ALONSO, idazlea

Idazle ona izateak esan nahi al du, beharrez, pertsona ona izatea? Existitzen al dira munduan pertsona onak? Edo guztiok al gara aldi berean onak eta txarrak, gure ekin-tzen ondorioen arabera? Ez al da literatura gizakiaren dualtasun morala aztertzen duen zientzia, gure barnean ezkututzen diren gizon eta emakume mota desberdin guztiak azaleratzen dituena? Posible al da egilea eta obra bereiztea? Modu berean miatzen al ditugu afera moralak gizonak ala emakumeak daudenean polemikaren erdigunean? Gai al gara, gizarte bezala, amaren abandonua gainditu eta barkatzeko, historikoki aitarena gainditu eta barkatu dugun bezala?

JULEN AZKONA, zutabegilea

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**PARRA-PARRA** → Laban egiten ibili. Gaztelarazko *'deslizarse, patinar'*. "Eurixa egin ostian zeheterixa guztia parra-parra ibiltzen zan handiko ortuan".

**PARRAPAR / PARRAPAS** → Gaztelarazko *'tobogán'*. "Edozein lekutan parraparra gertatzen genduan".



# 1975

## Dantzariak Arrate egunean

Dantzariak, Arrateko zelaian,  
Ama Birjinaren omenezko  
jaietan (irailaren 8an) egindako  
txapelketan. Bizkarrez, bikotea  
agurtzen ikusten den gizona  
Antxon Iraolagoitia, orduko  
alkatea da.  
PLAZAOLA



### Farmaziak

<b>BARIXAKUA 20</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>ZAPATUA 21</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>DOMEKA 22</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>ASTELEHENA 23</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>MARTITZENA 24</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>EGUAZTENA 25</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUENA 26</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>BARIXAKUA 27</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>GAUEZ BETI, 2024an,</b> <b>Lekunberri</b> (Isasi, 31)

### Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

### Hildakoak

- **Alberto Uriona Arenas.** 82 urte. 2024-09-12.
- **Ruben Arriola Muñoz.** 92 urte. 2024-09-13.



## 23 dendarik beraien eskaintza aterako dute gaur, kaleak azoka bilakatzeko

Eibar Merkataritza Gune Irekia elkarteak Udalarekin lankidetzan antolatuta, gaur Braderie izeneko ekitaldia egingo da, 10:00etatik 20:00etara, parte hartzera animatu diren 23 dendatan (No Comment, Cedry, Corral, Igmarr, Moapics, Gratzina, Guby, Xare, Nona, Ikusi, Pissa, Lulú, Bambi, Hartara, Tio Palancas, Vieco, Helmet House, Gigil, Kopina, Irritsa, Zorionak Ludoteka, Villalva supermerkatua eta Central Optica). Asmoa tokiko merkataritza dinamizatzea da, eta horretarako dendetatik kanpora, kalera aterako dituzte produktuak. Kaleko-azokarekin batera, musika ipiniko dute, girotzeko, eta 5

urtetik gorako haurrentzat tailer-rrak eskainiko dituzte, dohainik, 17:00etatik 19:00etara: Adarabarrek “Zeure osagarriak diseinatu” moda tailerra emango du (Untzagan), eta Zorionak Ludotekak “Diseinatu eta apaindu ezazu zure kutxatila kotoi organiko” izeneko (Errebalen).

Bestalde, Eibarko 16 ostalaritza-establezimenduk (Koskor, Kultu, Kontent, Lusai, Tas Tas, Albert, Suberoa, Topaleku, Arkupe, Banaka, Chic, Slow, Foxtter, Ametsa, Batzoki, Txoko eta Guridi) bat egingo dute ekimenarekin, bezeroei ohiko “pintxopoteaz” gozatze-ko aukera eskainiz.

## 100.000 euro baino gehiago erabili dira eskolen hobekuntzarako obretan

Udalak hainbat hobekuntza-lan esleitu ditu Urkizu, San Andres eta Amaña eskoletarako. Lan horiek Eusko Jaurlaritzaren % 60ko dirulaguntza dute. Urkizun, kortxozko zoladura jarri dute terrazan eta, horrez gain, komun bat egokitu da bigarren solairuan. San Andresen, terraza konpondu eta ikasgelen arteko lotura egin dute, gimnasioko aldageletako ateak aldatzeaz gain. Eta Amañan ateak egin dituzte, ikasgelen arteko lotura hobetzeko.



## Urteetako etena eta gero, aurten Ipuruako jaiak ospatuko dira berriro

Hamarkada batzuetako etenaldia eta gero, aurten Ipuruako jaiak ospatuko dira, iraileko azken asteburuan. Irailaren 28an (zapatua) goizetik hasiko dira: 08:30ean mendi buelta (irteera eta amaiera Argatxan) egingo dute; 10:30ean salda eta txorizoa banatuko dituzte; 11:00etan txupinazoa botako da; 11:30ean herri-kirolak hasiko dira; jarraian, triki-poteoa egingo dute; 15:00etan, bazkaria (Mogeleko patioan); bazkalostean, Korralito abesbatzak emanaldia eskainiko du; 17:30ean jolasak hasiko dira; eta 20:30etik aurrera kontzertua emango dute Erramunak, Makis 37 eta Mugi Panderoa taldeek. Eta zapatu bete-betea eta gero, domekan jarraituko du jaiak, goizetik eguerdira bitartean: 10:30ean toka eta igel-toka txapelketak jokatu dira, Ipuruako jubilatutako txarearen eskutik (eliza parean). Ordu bete geroago, Skalextric zirkuituak eta txokolategiana hartuko ditu Jazinto Olabe plazak. Eguerdian, 12:00etan, auzoan hildakoen aldeko meza ospatuko da, eta 12:30ean Kaxak erakustaldia egingo du (Jazinto Olabe plazan). Amaitzeko, 13:30ean “bermutada” egingo dute han bertan, Eustah DJ-aren musikak girotuta.



## Barizeei buruzko informazio-saioa egingo dute eguaztenean Portalean

Barizeei, sintomei, prebentzioari eta tratamenduei buruzko informazioa emango dute Varitek-eko profesionalak Portalean, eguaztenean (hilak 25), 19:00etan. Sarrera librekoa izango da, ez da beharrezkoa izena ematea. Hitzaldiak hiru zati izango ditu: hasteko, barizeak zer diren (motak, prebentzioa eta sintomak) azalduko dute; ondoren, Varitek-ek erabiltzen dituen kirurgiarik gabeko metodoak; eta, amaitzeko, bertaratutako en galderak erantzungo dituzte.



## Arrate izenekoek ederto ospatu zuten beraien jai-eguna, Kofradixa egunean

Urteroko ohiturari jarraitu diote aurten ere Arrate izeneko emakumeek, eta, lehenengo urteetan bildutako taldea askoz handiagoa izan arren, aurten 27. edizioa ospatzera animatu direnek egunpasa ederra egin zuten domekan Arraten, eguraldia lagun zutela. Arrateko Amaren pausoen bidetik oinez igo ziren batzuek, eta besteekin elkartu eta gero Santutegira bisita egin zuten, izena eman dien Ama Birjina ikusi, eta berarekin batera argazkia egiteko. Gainera, egun horretan Kofradixa eta Baserritar jubilatuen eguna ospatzen zenez, jai-girorik ez zuten faltan izan.



### Jesus M<sup>a</sup> "Ketxu" Iraola Zubizarreta

**1. URTEURRENA**  
2023/09/17

"Zure irribarre  
eta kantuek  
gure bihotzetan  
bizirik dihardute"

**ASKO MAITE ZAITUGU**  
- Markei, Laura, Nala, Añize eta Urko -





### Ramon Bermudez Arteche

2024/08/21

"Hitz gutxirekin eginaren  
bidez beti laguntzen,  
betirako gure eredu,  
mendi tontorrean  
itxaron gaitzazu"

ESKERRIK ASKO  
gure onduan egon  
zaretan danosi.  
- SENIDEAK -





## Merkatari eta ostalarientzat atez ate hondakinak jasotzeko zerbitzu berria

Eibarko eta Elgoibarko merkataritzako eta ostalaritzako sektorearentzat ontzi arinak eta hondakin organikoak atez ate biltzeko zerbitzua jarri du martxan aste honetan Debabarrena Mankomunitateak. Helburu nagusia hondakinak gaika bereiztea eta biltzea sustatzea da, “establezimendu komertzialak eta ostalaritzakoak hondakinen kudeaketa arduratsuan inplikatur”. Era horretan, gaikako bilketaren datuak hobetu nahi dira eskualdean, “merkatari eta ostalariei beren hondakinak modu eraginkor eta iragankorrean kudeatzeko lana erraztearekin batera”.

Ekimena azaltzeko, eguaztenez prentsaurrekoa egin zuten, bat egiten lehenetarikoa izan den Txal-txa Zelaiko fruta-dendan. Aisha Ourdi bertako jabearen berbetan, “oso harro gaude proiektu honetan parte hartzeagatik. Gure ustez, funtsezkoa da tokiko saltoki guztiek birziklapena babestea, etorkizun iraunkorragoa izan dezagun”. Bestalde, Debabarrena Mankomunitateko gerentea den Nerea

Zubillagak ekintzaren garrantzia azpimarratu zuen: “Atez ate biltzeko zerbitzu berri hau birziklatze-eredu eraginkorrago baten aldeko apustu irmoa da, eta herriarrendandik hurbilago dago, gainera. Eibar eta Elgoibarko udalerrietan hasi gara, baina eskualde osora zabaldu nahi dugu”. Materia organikoa biltzeko zerbitzua astelehenetik zapatara egingo da; ontzi arinak, aldiz, martitzen, eguen eta zapatuetan bilduko dira. Eibarko ordutegia 9:00etatik 13:30era izango da, eta Elgoibarko 17:30etik 19:15era. Bilketa guztiak digitalizatu egingo dira, zerbitzuaren erabilera ona baloratzeko.

2025era begira, hondakinak behar bezala bereizten dituzten establezimenduei hobariak jartzeko aukera aztertzen ari dira Mankomunitatean. Ekimen honekin bat egiteko interesa dutenek parte hartzeko moduari buruz xehetasun gehiago nahi izanez gero, Mankomunitatera joan edo bere webgunea bisitatu daiteke.



## Udal Kontsumo Bulegoak hitzaldia emango dute Beheko Tokin

Beheko Tokia gizarte-ekintza gu- neak hitzaldia antolatu du dato- rren egunerako. Karmen kaleko bere lokaletan izango da saioa, 17:00etan, eta Kontsumitzailearen Udal Bulegotik joango dira berba egitera. Besteak beste, kontsumitzailearen udal-bulegoa zer den eta erreklamazio bat nola egin azalduko dute. Horrekin batera, argindar eta gas kontratuetan gertatzen diren iruzurrei eta “ate-hotzeko” salmen- tei buruz ere arituko dira berbetan. Sarrera librea izango da.

## Duintasunez Hiltzeko Eskubidea elkarteko kideek hitzaldia emango dute eguenean Portalean

Agurtzen-Ikastenek antolatuta, eguenean (hilak 26) “Duintasunez hiltzeko eskubidea. Aurretiatzko borondateak” izenburuko hitzaldia eskainiko da, 18:30ean Portalean (areto nagusian). Horretarako, antolatzaileek Duintasunez Hiltzeko Eskubidea Euskadi elkarteko kideak gonbidatu dituzte, gaiari buruzko azalpenak eman ditzaten. Sarrera librea izango da.





## Legebiltzarrean aurkeztuko duten ekimena babesteko autobusa antolatu dute

Eibarko Pentsiodunen Taldekoak indarberrituta itzuli dira oporren ostean, eta astelehenean ikasturteko lehen elkarretaratzea egin zuten, 130 lagunene parte-hartzearekin. Datorren asteko eguenean (hilak 26), berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko pentsiodunen mugimenduak Legegintzako Herri Ekimena erregistratuko du Eusko Jaurlaritzan, izapidetzeko onartu eta, ondoren, Legebiltzarrean eztabaidatu dezaten. Pentsiodunen ordezkariak diotenez, “ekimenak proposatzen du pentsiodunek, gizonek eta emaku-

meek, urte askoko lanaren ondoren, bizi-baldintza duinak izateko adina diru-sarrera jasotzeko eskubidea dugula”. Legebiltzarrean hori onar dadin lortzea, neurri handi batean, kolektiboaren mobilizazio-gaitasunaren mende dagoela azpimarratu dute. Horregatik, Debabarrenatik autobusa bat antolatu da, “Legebiltzarreko ateraino joan eta ekimen horren aurkezpena babesteko”. Autobusa 09:00etan irtengo da Eibar-tik, eta interesa dutenek asteleheneko elkarretaratzean eman dezaketeko izena (12:00etan Untzagan).

## Bigarren eskuko bizikleta azoka eta bide-heziketarako zirkuituak Mugikortasunaren Astean

Europako Mugikortasunaren Astearekin bat eginez, Udalak biharko Bigarren eskuko Bizikleten Azoka antolatu du. Goiz osoan, 10:00etatik 14:00etara egongo da martxan azoka, Untzagan, eta aurreko edizioetan bezala, bizikletak konpontzeko tailerra ere egongo da. Eta domekan, berriz, Eibarko Klub Deportiboaren eskutik, bide-heziketa zirkuitua eta ginkana egingo dira, 5-12 urteko haurrentzat. Untzagan izango da, 17:00etatik 19:30era (euria egiten badu, Errebal Plazan).

\*\*\*  
**FUNEUSKADI**  
Funeraria Mugica

TANATORIO EIBAR

\*\*\*  
**FUNERARIA MUGICA**  
Funeraria

TANATORIO CREMATARIO ELGOIBAR

**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951**  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

<p><b>Eibar:</b> Oteola, 27</p> <p><b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Xilillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Clasako hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ermuako bulegoa:</b> Marques de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

## Oier Areitio Blasco

**5. URTEURRENA**  
2019/09/23

**“Betirako gure bihotzetan”**

**Maite zaitugu**  
- ETXEOAK -



ile-apaintzaileentzat bereziki antolatutako kongresuak ohikoak izan ziren 1950eko hamarkadan. Sindikalean egin zuten honetan, permanentea nola egin azaldu zieten bertaratutakoiei. PLAZAOLA

Eibarko ile-apaindegia izendatzen ditu, asko ziren gerra aurretik. Bakoitzak txapa doratu bat izaten zuen ile-apaindegia zela jakiteko. Jende asko joaten zen ilea moztera eta, lan asko zuela-eta, aitak alpagata denda utzi egin zuen.

## Eibarko ile-apaindegia

**Mari Carmen Agirre Berezibar**  
(1924 – 2023)



Gurasoak Elorrio ingurukoak zituen, baina gazterik etorri ziren Eibarrera eta bertan jaio ziren Mari Carmen eta bere anai-arrebak. Untzagan jaio zen eta bertan bizi izan zen beti, Txoko taberna gaineko etxeetan. Untzaga ingurua eta bertan gertatutakoak ondo baino hobeto ezagutzen zituen. Aitak, Eugenio “Elorrixok”, ile-apaindegia zuen Untzagan bertan. 13 urte eskas zituela harrapatu zuen gerrak eta lanean hasi behar izan zuen: umezain, BH lantegian, dendari... Elkarrizketa egiteko orduan Julita Arregi Etxeberria izan zuen lagun Mari Carmenek (eskuinekoa).

**Mari Carmen Agirrerri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa**

[Pelukero gitxi egongo zan orduan?] Bai, baeuazen ba, baeuazen. Porke nik erretrato bat badaukat, porke eskursiñuak-eta eitten eben pelukeruak, e. Ta, bakizu, gero haunditu ein zan ezta Eibar be ta. Dakat nik erretrato bat Gernikako Arboliai da hantxe parian pelukero Eibarkuak, kuadrilla ederra, e, guapuak gizonak danak. Porke baeuan pelukerixia, hamen Calbetioian be bi euazen, gero Unzagan... Lelengo-lelengo ez baiña gero bai; Isasixan be bai, Estaziño Kalian be bai, Patxonekua edo, ta bastante pelukero euan. Gerria baiña lehenao, e. [Julita.] Ez zate akordatzen hola dorau txapa bat eukitzen eben. Barberixia euan tokixan ez eban ipintzen “Barberia” eta ezebez, plaka haundi bat dorau bat, hauraxe eukitzen eben.... pelukerixia Eibarren, eta danak eken horixe. Bola haundi bat dorauta. (...)



**UZAILAKIA 2024**

**NOLA SORTZEN DITUGUN HONDAKINAK MURRIZTEN?**

**KONPONKIZ, BERRERABILU, ETXALDURAKETA ETA BERRASMATU?**

## "BERRERABILU ETA BERRASMATU" TAILERRAK

Itzasa emateko egoia: irailak 25 - urriak 5

- Adinez nagusiak. Gehienez 3 taller pertsonako.
- Pajera edo <https://formularioak.elbar.eus/au/berrerabilu-eta-berrasmatu-2024-02>
- Oneraten zurenda argitaratzeko egoia: urriak 7
- Oneratek matrícula formularioa emateko egoia: urriak 8 - urriak 15
- Matrícula inprimakia udalaren webgunean eskuragarri
- Matrícula Pajerako postontzian atal (Aguenera, 7.30 - 21.30)

**KATALOGOA**



	Etarren erakundeak	Etarren erakundetara ez doanentz
• <b>ETXEDKO ONARAZKIZKO KONPONKETAK, ESTALDURAKETA PINTURA:</b> urriak 20 eta 29, azaroak 5, 12, 19 eta 26 / 17:30 - 19:30 <small>Astikari OLSA - SPTB / Gasteiz</small>	0 €	17 €
• <b>IKASLE ZURE BIZKILETA KONPONITZEN:</b> urriak 23 / 18:00 - 20:00 <small>Emateko plaza (A-Gela) / Euzkoak</small>	0 €	
• <b>ETXEDKO ONARAZKIZKO KONPONKETAK, ITURGINTZA:</b> urriak 24 eta 31, azaroak 7, 14, 21 eta 28 / 17:30 - 19:30 <small>Astikari OLSA - SPTB / Euzkoak</small>	0 €	17 €
• <b>SORTU ZURE HALLOWEEN SORTA:</b> urriak 26 / 11:00 - 13:00 <small>Zerimaila Udaltzaria / Euzkoak / Nazionala ezin izango duzueko zerbitzua (4-10 urte bitartekoak eta gehienez 30 hor)</small>	0 €	
• <b>TAPIZATU ETA ESTREINATU ZAHARRETKI BERRORA:</b> azaroak 9 / 10:30 - 13:00 <small>El taller de Manipulación / Gasteiz</small>	0 €	
• <b>BERRASMATU ALTZARI BEROI BAT PALETEKIN:</b> azaroak 13, 20, 27 eta abenduak 4 / 17:30 - 19:30 <small>Astikari OLSA - SPTB / Euzkoak</small>	13 €	
• <b>KORTXOKEKIN JOLASTEN: GABONETAKO APANGARDOAK:</b> azaroak 16 / 11:00 - 13:00 <small>Euzkoak / Euzkoak</small>	0 €	
• <b>ZIANTZAN BOTOAKIN: NATURAREN ELEMENTUAK BIRZIKLATUZ OSAGARDOAK BERRASMATU:</b> azaroak 23 / 11:00 - 13:00 <small>Astikari / Euzkoak</small>	0 €	
• <b>APROBETZAMENDUZKO GUKALDIATZEA: GABONETAKO DORERAKINEKIN ERREZETAK EGITEA:</b> abenduak 3 / 17:30 - 20:00 <small>Ponitxakia ezin izango / Euzkoak</small>	0 €	



V. Elbar Hiria txapelketa

# Futbol egokitua

2024/09/29 · 9:30-13:30

*Ipuruako anexoa*







Antolatzailea:



Laguntzaileak:






ENRIKE SOSOLA

## BASAGUNEA

### Kontsumo-Elkartea

Elikadura-autogestioaren kezka eraginda, 2011. urtean Azataporrua Kontsumo Elkartea eratu genuen Eibarren. Ekoizle-kontsumitzaile distantzia txikituz, salmenta zuzeneko espazioa sortzea nahi zen. Eta bai lortu ere nekazaritza ekologikoaren altzoan, eta salerosketa hutsetik haratago, giza harreman eta lan zein erabaki kolektiboetan oinarritutako lagunarte bizia. Horrela, kideek, izan baserritar zein kaletar, erabaki eta mantenu-lan guztietan parte hartu dugu, besteak beste txandaka dendari-lanetan.

Orain, 13 urteren ostean, egitasmoa eraberritzeko unea iritsi zaigu. “Garai berrietarako tresna berriak” esan ohi da. Beraz, iruditu zaigu urratsa egiteko garaia heldu dela. Batetik, kontsumo-eredu honek dimentsio berria plazaratzeko: agroekologia. Bestetik, Errebal Plaziak aukera aproposa eskaintzen duelako. Eta, azkenik, eragin-esparrua zabaltzeko, kidegoa handitzeko.

Kontsumo Elkartea berriaren izena BASAGUNEA da, eta Errebal Plazako postu finko batean izango du kokapena. Baserritar-ekoizleen salmenta zuzenerako etxean hartuko dugu babes. Eta horren jakitun, espazio hori dinamizatze konpromiso irmoa hartu dugu. Hala nola, kontsumo sostenigarrian eta trantsizio ekologikoan sakontzeko urgentziaren premiaz dinamikak sortzeko: hitzaldi, irteera, dastaketak, tailerrak, azokak...

Futzionamenduari dagokionez, salmenta-postuak ordutegi zabala izango du kide baten egun erdiko dinamizazioari esker. Bazkideek kuota baten truke jeneroa merketxoago eskuratzeko aukera izango badute ere, produktuak herritar guztiei eskainiko zaizkie. Salgaiak, betiere irizpide agroekologikoetan sortuak izanik, nekazari-ekoizleen eskuetatik jasoko dira zuzenean.

BASAGUNEA ahalduntze-eriketa bat da, herritarrok jan nahi dugunaz geronek erabakitzeko espazioa. Lurra, landareak, abereak eta ingurumena zaintzeaz gain, pertsonak ere zainduko dituen kontsumo-eredua sustatzeko erreminta. Interesik? Hala bada, jakizu bazkidetza-kanpaina irekiko dela laster.

Zatoz, zure aletxoak jartzera elkarzaintzarako egitasmo honetan!

**“Kontsumo Elkartea berriaren izena BASAGUNEA da, eta Errebal Plazako postu finko batean izango du kokapena”**



# Ehun urte eta hiru belaunaldi, eskuilak egiten onenak izateko

Metalezko hariak dituzten eskuilak egiten dituen JAZ-Zubiaurre S.A. familia-enpresak mendeurrena ospatzeko ekitaldia egin zuen aurreko barixakuan, Azitain industrialdean dagoen lantegian. Bertan bildu ziren, besteak beste, Imanol Pradales lehendakaria, Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusia eta Jon Iraola alkatea. Horiekin batera, eremu politiko eta enpresarietako tokiko eta lurraldeko agintari nabarmenak ere egon ziren, hala nola Isabel Busto Adegiko presidentea, Tamara Yagüe Confebaskeko presidentea eta Antonio Garamendi CEOeko presidentea.



**E**duardo Zubiarre enpresako zuzendari nagusiarekin batera lantegian bisita egin ondoren, ordezkari politikoak aritu ziren berbetan. Mendeurrena dela eta, zorionak emateaz gain, denek azpimarratu zuten enpresak lortutako mugarriaren garrantzia. Izan ere, gutxi dira gure lurraldean 100 urte betetzera ailegatu diren enpresak: mendea bete duten Euskal Herriko erakundeen zerrenda horretan, JAZ-Zubiaurre 36. tokian dago.

Enpresaren egokitzeko gaitasuna eta etorkizuneko ikuspegia ere nabarmendu zituzten, “Eibarren sortu zen tailer txikia, gaur egun sektoreko erreferente nazionala izatera iritsi arte”.

Lehendakariaren berbetan, “berrikuntza eta nazioartekotzearen adibide eta eredu ere bazarete, eta hori ez da gutxi. Familia-enpresa txiki bezala jaio zineten, orain

inbertsio berriak sustatzen dituzue. Berrikuntza indartu eta zuen ekoizpena 65 herrialdetan saltzen duzue. Lehen mailako zerbitzua eskaintzen duzue. Harro egoteko moduko eredu zarete, harro gaudetzue, zuekin eta zuen ibilbidearekin”.

Eduardo Zubiaurre zuzendari nagusiak bere aitxixak sortutako tailerrak 100 urte hauetan izan duen bilakaera ekarri zigun gogora: “Orain dela 100 urte, akabatzaile familia bateko kide batek, gure aitxixta Domingo Zubiaurrek eta bere lehengusu batek, asmo hori izan zuten. Eurek erabiltzen zituzten lanabesen artean Uncetari erosten zizkieten metalezko eskuilak zeuden, Uncetak Alemaniatik ekartzen zituenak, eta produktu hori egiteko modua ikusi zuten. Eta, bide horretatik, beste lanbide bat sortzeko aukera, eta horrela hasi zen jarduna. Gero,

Ekitaldian grabatutako bideoa gure YouTube kanalean ikusgai:





Barixakuko ekitaldian erakunde eta enpresa liderren presentzia nabarmena izan zen: Imanol Pradales lehendakaria, Eider Mendoza diputatu nagusia, Jon Iraola Eibarko alkatea eta Adegí, Confefask eta CEOeko ordezkari nagusiak egon ziren, beste hainbatekin batera.

urte askotan, enpresa txiki bat izan zen, oso artesanala, familia-koek bakarrik egiten zuten lana... Hazkunde gure aitarekin, Javier Zubiaurrerekin etorri zen. Armeria Eskolan Maestria Industrial egindakoa zen, Peritaje Industrial Tarrasan, beste ezagutza batzuekin, eta beste bultzada bat eman zion enpresari: inbertsioak, jendea kontratatu, prozesuak hobetu, merkaturatu... Jarduera artsanal hartatik industria bat sortu, eta beste hazkunde bat eman zion. Eta ondorengoak proiektua hazten ibili gara, erronka berriei aurre egiten, prozesuak hobetzen, berrikuntzan, nazioartekotzan, Estatu Batuetako proiektua garatzen... Belaunaldi bakoitza bere erronkarekin aritu da. Proiektuari eman behar zaio ahalegina, konpromisoa... horiek gabe zaila izaten da proiektu bat aurrera eramaten”.

## Berrikuntza eta garapenean 3 milioi euroko inbertsioa egin eta gero, 2025ean 12 milioi euroko salmentak lortzea espero du enpresak

Eibarren industriarako lurzorurik ez zegoela eta, asko izan ziren Eibartik beste toki batera joateko erabakia hartu zuten enpresa; baina, zailtasunak zailtasun, JAZ-Zubiaurrek beste bide bat hartu eta, ehun urte hauetan toki ezberdinak ezagutu dituen arren, beti Eibarren egon da.

### Eibarren sortu, hazi eta ondo errotutako tailerra

Zubiaurrek dioenez, “egia da hor egon zela momentu bat, 90. hamarkadan, non ikusi genuen aurreko kokapenak, Asua Errekan genuenak, zailtasun handiak ematen zizkigula. Guk han 4.000 metro genituen, lau solairutan. Eskerrak industrialde hau egin zela, apustu hori egin genuen, inbertsio handia izan zen, baina ikusten genuen etorkizuna izateko toki berri bat behar genuela, eta hemen garatzeko aukera izan dugu”.

JAZ-Zubiaurrek Arragueta kailean zabaldu zituen ateak lehenengoz, eta hasierako urte haietan han egon zen tailerra, Gerra Zibila hasi arte. Gerra amaituta, Legarren jarraitu zuten beharrean, artisau eran, 1957an Javier semeak aitaren lekukoa hartu zuen arte. Bigarren belaunaldia enpresari bultzada

## Gainazalak tratatzeko tresnen eta metalezko hariak eta nylon urratzailea dituzten eskuilen ekoizpen eta merkaturatzean aditua da enpresa



berria emateko asmoarekin zertorren eta, horrela, lantegia Jardíñeta-Muzategira eraman zuten. Handik urte batzuetara, 1970. urte inguruan eta lantegiaren hazkunderarekin batera, tailerra berriz ere tokiz aldatu zuten, Asua Errekara joateko. Eta azken toki-aldaketa 1997. urtean egin zuten, Azitaingo industrialdera joan eta hura estreinatzen lehenak izan zirenean.

### Berrikuntzan eta hedapenean oinarritutako plana

Aurrera begira, enpresaren zuzendaritzak hedatzen jarraitzeko asmoa dauka: enpresak Eibarko lantegian ekoizpena %30 baino gehiago handitzeko lanean dihardu eta, era berean, AEBetako filialeko biltegia handitu nahi dute, bertan ekoizpenaren erdia baino gehiago merkaturatzen baitute. Zubiaurrek azaldutakoari jarraituz, “70 lagu-



Eduardo Zubiaurre zuzendari nagusiaren aitxitzak sortu zuen lantegia, 1924an.

**65 herrialdetara esportatzeaz gain, Estatu Batuetan presentzia nabarmena daukate. JAZ USA Inc. filiala dute bertan, 1999az geroztik**

netik gorako plantillan dagoen laugarren belaunaldiko kideekin, konpainiak etorkizunari aurre egiten dio berrikuntzan eta hedapenean oinarritutako plan anbiziotsu batekin, bereziki AEBetan eta Europan. Horretarako, hiru milioi euro baino gehiago inbertituko ditugu, manufaktura eta logistika gaitasunak sendotzeko, eta irtenbideen eskaintza zabaltzeko, 2025ean 12 milioi euroko salmenta-zenbakia lortzeko helburuarekin”.

# Walter, eibartarron gogoan betiko

BIDEOA



Walter Tuzzeok herrian eta musikariengan laga duen hutsunea ikaragarria da, eman duena asko izan delako. Horrela, hilaren 28an, zapatuan, Sizilian jaiotako soinu-teknikari eta musikari eibartarra omenduko dute Untzagan. Horretarako, 18:30ean hasita, berarekin harremana izan zuten hainbat eta hainbat musikarik saio berezia eskainiko dute maisu handia gogoratzeko.

**J**arraian, berarekin lotura izan duten hainbat musikariren berbak jasoko ditugu Walter Tuzzeo gogoratzuz, eta QR-a eskaneatuz gero, omenaldian parte hartuko duten lagun batzuekin izandako elkarrizketaren bideoa aurkituko duzue.

## Jakin-minak lotuta

**We Are Apes, Hello!** taldeko ki-deek honako hitzak eskaintzen dizkiote: “WAAH! eta Walterren arteko historia taldea sortu baino urte batzuk lehenago hasi zen. 2014an Orihen Legarreko estudioan sartu zen abesti bat grabatzeko, Walterrek eta Javik ekoiztuta. Harreman profesionalaz haratago, urte batzuk geroago fruituak emango zituen laguntasuna hasi zen orduan. 2016an WAAH!-k Walterrengana jo zuten euren lehen laneko ahotsak grabatzeko. Ekoizpenaren, musika-grabaketaren, elektronikaren eta tresnen konponketaren inguruko jakin-minak elkartu gaitu beti”.





## Beti jator eta musikarako prest

**Azkaiter Pelox** taldearen hitzak: “Walter Tuzzeo, Aitor Aranbururen (bateria-jolea) bitartez ezagutu genuen. Azkaiter Peloxen baxua jotzen hasi zen eta Bergaratik Eibarko Legarreko entsegu lokaletara poz-pozik joaten ginen Walterren azentu italiarrarekin entseatzera. Bitxia zen Walterrek baxua anplifikatzeko zuen modua: ez zuen baxuaren anplifikatzaileker erabiltzen eta baffle baten konektatzen zuen ‘previo’ batekin. Beti jator eta musikarako prest. Sasoi hartan mimo handiz grabatzen ari zen karibear musika talde bat aurkeztu zigun. Gurekin entseguak eta kontzertuak ere partekatu ditu. Estudioko teknikari lanez gain, zuzeneko teknikari moduan lanean kointziditu genuen geroago. Oso harreman polita egin genuen, eta bere baikortasuna eta prestutasuna azpimarratuko genituzke”.

## Zekien guztia ezin erakutsi

**Maite Arroita** jauregi ‘Mursego’-k horrela oroitzen du Walter: “Walterren eskuzabaltasuna azpimarratuko nuke. Niri, adibidez, softwarearekin asko lagundu zidan. Musika asko maite zuen. Dokumental bat egin nuen berarekin, baina (Eibarren) ez zuen aukerarik izan berak zekien guztia erakusteko. Oso teknikari ona zen, baina Italian ikusentzunezkoetan lan asko egin zuen eta hemen ez zuen lan hori egiteko aukerarik eduki. Pena da. Azkenean, beste herrialde batetatik zatotz eta zaila da zure bidea egitea”.

### USTEKARE

MURSEGO  
TRIO MEDIANOCHE  
MARNOS UNTZETA  
RUMBO PARAISO  
JUDASH  
OS GALANOS  
AZKAITER PELOX  
MIRARI TA AINTZANE  
URKARI  
KOKEN  
BEATO  
PIRO CHILE  
NORTH SCHOOL  
MELOSA & THE JACKS  
MIREN NARRAIZA  
WE ARE APES, HELLO!  
DAVID KARBA  
GORKA MARTINEZ DE LAGO  
EIRBAND KORO GATZEA  
THE VARTOOLS  
ARDA ROJAS  
EIRBAND

...TA BESTE  
HAINBAT BONDIBATU.

## Bosgarren elementua

**Eirband** taldeko Jonen berbak: “Guretzat Walter gauza asko zen: laguna, familia (nire lehengusina Bearen senarra zen eta "primo" esaten genion elkarri), baita bidai-laguna ere, besteak beste.

Eirband taldea Bea eta Walterren ezkontzaren ondorioz jaio zen; horregatik beti esan dugu taldeko hazia beraiek jarri zutela. Han ezagutu genuen elkar Iñakik (bateria eta Walterren lagun-mina) eta nik, Jonek (ahotsa eta gitarra), biok musika egiteko gogoaz ginela. Victor

(teklatua) eta Iñaki Sevilla ‘Sevi’ (ahotsa eta baxua), gutako bakoitzaren lagunak, hurrenez hurren, abiatu genituen Eirband bertsio-taldea konfiguratzeko (Eibar eta band berbeekin egindako hitz-joko bat).

Taldea sortu zenetik Walter beti egon izan da gurekin: ekarpenak egiten, irakasten, gainbegiratzen, probak eta grabaketak egiten, eta, nola ez, soinu mahaiaren arduradun moduan; azken hori, lasaitasun, konfiantza eta segurtasun handiena ematen duen benetako koltxoia izan da guretzat, eta, batez ere, benetako

IRAILAK 28 18:30  
UNTZAGA PLAZA

*Eterno*  
**WALTER**  
Walter Tuzzeo maixuari omenaldi musikala

luxua. Walter, beraz, Eirbanden parte zen; bosgarren elementua esaten genion. Baina esan bezala, Walter, gure soinu teknikari, lagun eta familia izateaz gain, bidaiaguna izan zen. Beraren iruzkin txiki batek ere, guretzako, ikastea eta aurreratzea zekarren, eta bere aholkuak beti egongo dira gurekin, eta ondo presente gainera. Musikak Eirband Walter-ekin lotu zuen betirako, baina bere izateko moduak hobeak izaten lagundu zigun (aspektu guztietan)”.

### Soinuaren ezagutza eta pasioa

**David Carballo ‘Karba’**-ren hitz sentikorrak Walterrentzat: “W.-k 1.000 urtetan ikusiko ez zenituen edo aintzat hartzen ez zenituen gauzak detektatzen zituen. Izan ere, berak zuen soinuaren ezagutza eta soinuarekiko pasioa pauso bat haratago zihoan. Inoiz ezagutu dudan profesional handienetakoa”.

### Fitxaketarik onena

Euren kide ohiarentzat berbak **The Vartools** taldearen eskutik: “Walter... gure Walter. Gure lehen diskoa grabatzera bere Legarreko estudioan sartu ginenean, bat-bateko maitemina sentitu genuen. Berak besoak zabal-zabalik hartu gintuen eta guk ez genuen askatu nahi. Guregan konfiantza handia zuen eta pila bat lagundu zigun gure soinua aurkitzen eta hobetzen, eta taldekide izatea eskaini genion. Fitxaketarik onena, duda gabe. Eta ordutik aurrera gure bidelaguna izan da, soinu-teknikari bezala, piano jole bezala eta denok gure buruan dugun gizaseme aparta bezala. Alaia, dotorea eta taldean ukitu exotikoa ematen zuena. Horrenbeste bidaiak eta kontzertutan momentu bikainak eskaini zizkigun, gaur ahaztezinak direnak. Asko sor diogu Siziliako seme honi, eta bidelagun izaten jarraituko du. Beti.



Herriko musikariengan demaseko itzala laga du Walter Tuzzeok. EKHI BELAR

Legarreko lokaleko entseguetan beti gaude bera eta bere trastoak atetik noiz sartuko zain. Eskerrik asko horrenbestegatik, lagun!”.

### Soinuaren frikia

**Judash** (lehen, Judas Argarate) taldeko lagunek pasarte ugari izan dituzte Walterekin eta horrela kontatu dizkigu Markel Iraolak: “Soinuaren frikia zen. Behin, Joseba grabaketa-gelan zegoen eta ni kanpoan. ‘Zer da zarata hori?’, hasi zen Walter esaten. Josebaren sudaderaren kremaileak mahaia pixka bat ukitzen zuenean egiten zuen zarata zen. Pentsa! Kafetera desmuntatzeko kapaz zen horrek zarata txikiena ere egiten bazuen. Entzumen oso

fina zuen! Gero, beste barre batzuk bota genituen bere akufenoeekin, hau da, belarrietako soinu iraunkorrekin. Kabroiak neurtuta zeukan entzuten zuen soinua zenbat hertziokoa zen. Horretarako, beste hertzio kopuru horretako soinua jarri zuen, neurtzeko, eta bete-betean asmatu zuen. Bestetik, berba asko egiten zuen. Musikaz asko zekien eta, grabatzera joaten ginenean, grabaketa-gelan sartu eta bi ordu pasatzen ziren. ‘Eh, Walter, bi ordu dira eta ez dugu grabatu’, esaten genion, eta berak: ‘Lasai, ordu hauek ez dizkizuet kobratuko’. Ariketa fisikoa egin behar zuela ere esaten zigun, baina ibiltzera joaten zenean batekin edo bestearekin elkartzen



Soinu-teknikari apartaz gain, musikari bikaina zen Walter Tuzzeo. THE VARTOOLS

zela eta berba egiten geratzen zela, eta azkenean ez zuela ezer egiten. Demaseko tipoa zen”.

### Walter badago, dena ondo irtengo da

**Eibarko Koro Gaztekoen** berbak: “Legarreko grabaketa-estudioari buelta eman zion Siziliako soinu-ingeniari baten inguruan hitz egin ziguten. Ezagutu bezain laster berarekin konektatu genuen. Den-dena ondo kontrolatuta egongo zenaren segurtasuna eman zigun. Eta horrela izan zen kontzertu, grabaketa eta kontzertu aurretiko hizketaldi bakoitzean. Ikuskizun bat geneukan bakoitzean bera egongo zela jakiten genuen momentuan, ondo genekien

eskurik onenetan geundela: “Walter badago, dena ondo irtengo da”.

Walter maitea, gure ibilbideko gertaera garrantzitsu askotan lagundu zenigun. ‘Forjarien Kanta’ musikala, ‘EKG hamar urte’, Txan-txa Zelaiko pandemia ostekoa eta Musika Eskolako hainbat kontzertu. Zurekin egin genuen azken lana ‘Neguko Ahotsak’ izan zen, non ordu askoko lana eskaini zenion eta gurekin diskoa erditzearen mina sufritu zenuen.

Eta beti hunkitzen gintuen bikaintasun eta profesionaltasunarekin. Zorion momentuak eta une txarrak partekatu genituen lagun eta gertuko profesional baten tratua eskaini zenigun.

Zer egingo dugu zu barik? Eibar-ko Koro Gaztea umezurtz gelditu da. Walter, gure historiaren parte zara eta horregatik gurekin eramango zaitugu beti”.

### OK, brava!

**Mirari eta Aintzane** trikitilarien hitzak: “Guk Legarren irudikatuko dogu beti Walter, bere aparato guztien aurrian, umoretsu. Eta kristal atzetik atzamar lodixakin OK egiten edo “brava!” esaten, irribarrez. Eta inoiz ez dittugu ahaztuko berak emondako aholku guztiak, berakin berriketan pasautako orduak eta batez be beran eskuzabaltasuna”.

### Profesional mundiala

**Ustekabekoen** berbak: “Gutako batzuek esperientzia gehiago izan dituzte Walterekin, baina txaranga osoa bi aldiz aritu da Walterekin lanean. Lehen aldiz, Legarreko estudioan, EH Sukarra grabatu genuen. Bere gaitasuna ezagututa, Eibarko Kantak diskoa grabatzea erabaki genuenean argi ikusi genuen Legarreko estudioa txikiegia zela guretzat, baina ez genion uko egin nahi Walterren ezagutzari eta lanerako gaitasunari, eta berarekin batera, Coliseo Antzokia grabaketa-estudio handi bilakatu genuen. Astebete pasa genuen bazkalostetik ia-ia gauerdia arte hor sartuta, eta izugarria izan zen berarekin lan egitea. Bera hobeto ezagutzeko aukera izan genuen hor txaranga-ko guztiok. Guk grabaketarekin bukatu eta gero, berak gogor lan egin zuen, ordu asko sartuz, grabatutakoari ahalik eta zuku onena ateratzeko. Eta baita lortu ere. Bere lana eta konpromisoa ez dago ordaintzerik. Profesional mundiala, bazekien denbora luzez isilik pazientziaz egoten; pertsona bikaina, hitz gutxiarekin lortzen zuen guztion sinpatia”.



Kamioia Untzagan jarri zuten kanpotik eta barrutik ikusi ahal izateko. ALBERTO ECHALUCE

## Garciaren eta Livingstonen kamioiak abentura kutsua dakar

Urte hasieran Saudi Arabiako dunetan, harriz beteriko eremuetan eta bestelako lur bihurrietan ibili ondoren, Dakar rallyean parte hartu zuten Fernando Garciak eta Ignacio Corcuera 'Livingston'-ek euren kamioia ekarri zuten zapatuan Untzaga plazara. Gainera, abentura horretan bizitakoak kontatu zizkieten bertan bildu zirenei.

Garciak eta 'Livingston'-ek "bizitzako esperientzia" bizi izan zuten Dakar rallyan. Bertan parte-hartzearekin ametsa bete zuten. Ametsa infernuan, munduko rallyrik gogorrena delako. Hain zuzen ere, rallya barrutik oso jende gutxik ezagutzen duelako, euren lekukotza eman zuten zapatuan parte-hartzaile biek: "Lasterketa gogorra da, oso arriskutsua. Horrelako kamioi batekin gora eta behera ibiltzea, ibilbide luzeak eginez, saltoka, aldapa pikoak igoz...

### Dakar rallyean parte hartu zuten kamioiarekin egon ziren Untzagan joan den zapatuan

Munduan ez dago horrelakorik. Esfortzua, sakrifizioa, erresistentzia eta talde-lana behar da", Livingstonen berbetan.

Livingstonek gidatu zuen kamioia eta Fernando Garcia mekaniko lanetan ibili zen. Soraluzekoa da bera, baina urte askoan Eibarraren lan egin ondoren, "eibartarra ere sentitzen naiz", diosku. Hain zuzen ere hemen maitemindu zen Dakar rallyaz. "80. hamarkadan Parisetik Dakarrera zihoazen ibilgailuak pasa ziren autopistatik eta adurra dariola geratu nintzen. Harrezkero, lasterketan parte hartzea izan dut begiz jota eta orain ametsa bete dut", bere berbetan.

Dakar rallya modukorik ez dago, baina Garcia antzeko beste lasterketa batzuetan ere izan da. "Pandemonium lasterketan aritu naiz, Marokon, baina Dakar lasterketa beste gauza bat da. 7 tonako kamioi batekin 8.000 kilometro egitea, hain eremu zailetan... Horrelako kasuetan ez duzu lehiatzen, parte-hartu besterik ez duzu egiten", zehazten du. Zentzu horretan, Dakarra amaitzea Everest igotzearekin alderatzen dute biek: "Everestera igotzen duzunean inork ez du galdetzen igoera zenbat denboran egiten duzun, igo duzun ala ez baizik. Ba Dakarrean berdin".

Garciaren eta Livingstonen kamioiaren batezbesteko abiadura 80 kilometro ordukoa izan zen Dakarrean. "Ez ginen lehiatu, baina ez genuen lasterketa utzi", dio bikoteak. Are gehiago, beste parte-hartzaileen mirespena jaso zuten. "Lehenengo egunean beste parte-hartzaileak gure kamioiari begira geratzen ziren. Bi aste geroago, 'hauek zer egiten dute oraindik hemen?', pentsatzen zuten", kontatzen dute. Gainera, bidean beste auto eta kamioi batzuk erreskatatu behar izan zituzten.



## Bilboko Triathloia ere poltsikoratu du Pello Osoro eibartarrak

Ia 500 atleta hartu zituen XIII. Bilbao Triathloiko Half proban, gure herriko triatleta handiak podiumeko gorenera igo zuen. Ez da lehen aldia holakorik lortzen duena, aurretik ere proba horretako lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena izandakoa baitugu; garaipen horrekin, berdinketa apurtu eta orain bi lehenengo postu ditu bere curriculumean. Ikusten da Osorok gustokoa duela Innevento Sports-ek antolatzen duen Bilboko proba; hori bai, Peñota bere taldeak nagusitasun osoa erakutsi zuen aurreko asteburukoan, eta eibartarraren atzetik sartu zen Gonzalo Fuentes, bost minutura, eta Mikel Mujika, azken hori zazpira. Ia betiko lez, Osorok bizikleta gaineko sekzioan handitu zuen aurkarietako alde, Morga eta Unbe igotzeak proba gogortu zuenean.



Bilboko Triathloiko podium osoa, probaren amaieran jasotako sariekkin.

Emakumezkoen arloan gauzak estuago egon ziren, eta hor Helene Alberdi bilbotarra nagusitu zen. Zumaiaiko Triatloi Taldeko ordezkariak 12 segundoko alde atera zion Ainhoa Murua zarautzarrari, antxintxiketan burututako sekzioan

bien artean borroka polita eskaini eta gero. Hirugarren postuan sailkatu zen Steffie Le Benezic, podiuma osatzeko. Kasu horretan ere, Alberdi irabazleak hirugarren aldiz bereganatu zuen Bilboko Triathloi Half proba.



Azken denboraldian Xoxotera egindako irteeraren irudia.

## Haurrentzako bederatzi mendi-irteera egingo ditu Deporrek ikasturte honetan

Mendirako zaletasuna bultzatzeko asmoz, Klub Deportiboak haurren mendi-irteeren egutegia prestatu du dagoeneko. Hilean behin izango dira, domeka goizetan (08:00etan irtenda), eta aukera paregabea eskainiko dute Gipuzkoako txoko eta tontorrek lagun giroan ezagutzeko. Horretarako, ikasleek euren ikastetxeetan egin beharko dute izenematea urriaren 2aren aurretik.

Irteerak honakoak dira: urriak 27, Tolosa (Gipuzkoako Eskolarteko Finalistaren Eguna); azaroak 17, Araotz-Orkatzategi-Araotz; abenduak 15, Flysch-a; urtarrilak 19, Untzilla-Murugain-Apotzaga; otsailak 16, Iturriotz-Pagoeta-Ur-

daneta; martxoak 16, Bergara (Ibitaldi Neurtua); apirilak 6, Mandubia-Kizkitza-Izazpi-Zumarraga; maiatzak 11, Larraitz- Ausa Gaztelu-Zaldibia; eta ekainak 1, Eibarko Finalista Eguna.

Gipuzkoako Mendizale Federazioaren "Eskola Mendi" programaren barruko ekimena herriko ikastetxeekin elkarlanean antolatzen dute eta doakoa da. Haurrak ez dira bakarrik joaten, eta 10 ikasleko guraso bat doa mendi irteerara arduradun-laguntzaile moduan. Eta, ekaineko Deporren Finalista Egunean banatzen duten domina lortzeko, gutxienez bost irteeratan hartu behar da parte.

## Gimnasia erritmikako Ipurua Klubak beste jauzi bat emango du denboraldi berrian

Estatu mailako talde federatu gehiago, modalitatean hasiko den haur kopuru handiagoa eta, azkenik, San Andres Torneoak bere historiako parte-hartzaile gehien izango duen 24. edizioa ikuspuntuan. Ez da panorama kaskarra Ipurua klubak duena denboraldi berriari begira. 180 gimnasta inguruk hasi dute ikasturtea hilabete honetan, Tania Nagornaya, Miriam Merino eta Natasha Urmakaevak osatutako talde teknikoaren gidaritzapean. Gehienak Ipurua kiroldegian prestatzen badira ere, 50 gimnastatik gora dihardute Ermuko Miguel Angel Blancon ere. Eskola adineko haur horiek Gipuzkoako Federazioak antolatzen dituen eskolara eta benjamin programetan hartzen dute parte.

Estatuko lehiaketetan parte hartuko duten gimnastei dagokienez, azken denboraldiko gimnasta ber-



berek osatutako senior taldeaz gain, klubak oinarrizko infantil mailako taldea estreinatuko du, oinarrizko jubenilen taldea partzialki berritzeaz aparte (hiru kide berrirekin); “banakako modalitatean lehiatuko den jubenil mailako gimnasta bat ere izango dugu”, diote bertatik.

Badira aste batzuk federatu mi-lakoak entrenatzen hasi zirela, eta aurreko zapatuan denboraldiko lehen torneoak jokatu zuten Madrilen, Vallecas klubak antolatuta. Oinarri infantil taldearentzat federatuen mailan debuta izan zen lehiaketa horretan, senior mailako boskoteak zilarrezkoa irabazi zuen.

Abenduaren erdialdera arte izango dute federatuek urteko tarterik biziena, lehiaketa batetik bestera jardun beharko dutelako sasoi honetan, urtero lez.

Azkenik, aurten bere 24. edizioa beteko duen San Andres Txapelketa oraingoan urriaren 27an jokatu-ko da Ipurua kiroldegian; urtetik urtera aurreratzen joan da data, eta orain jaiak baino hilabete lehenago jokatu-ko da. Oraingoan 495 gimnastek eman dute izena, estatu osoko 48 klubetatik etorriko direnak: Ipurua Klubak antolatutakoak hartu duen garrantziaren seinale ezin argiagoa.

## Zapatu goizean paleta gomako partiduak izango dira Astelenan

Gipuzkoako Binakako Txapelketa-ko bigarren jardunaldia jokoan den honetan, bihar goizean, 09:30etik

aurrera, Osa-Urain gure herriko bikoteak Zarautz 3 bikotea hartuko du aurkari eta, jarraian, Soria-Gui-

nea etxeko bikoteak Aia 2 bikotearen aurka neurtuko ditu indarrak. Paleta gomako modalitate horretan atzo arratsaldean zen jokatzekoa, Astelenan hori ere, Eibarko Gisasola-Solagaistua eta Errenteriako Batzokiko bikotearen artekoa.

Klub Deportiboko eskuz pilotako ordezkari guztiek, bestalde, asteburu honetan etxetik kanpo jokatu-ko dute, Villabonan, Oiarzunen eta Lazkaon izango diren pilota jaialdietan.



## Mek Eibar Eskubaloiko talde nagusiek Liga hasiko dute asteburuan

Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatzen duen Mek Eibar Eskubaloiko emakumezkoen lehen taldeak Ipuruan estreinatuko du Liga zapatu honetan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera Beti Onak hartuta. Hirugarren urtez jarraian jokatuko duen maila horri eustea ez da lan erraza izango eibartarrentzat, baja garrantzitsuak markatu ditzakeen denboraldiari aurre egin behar-ko baitio taldeak: alde batetik, funtsezko jokalariek erretiratu direlako, eta bestetik, lesioek markatutako

bajak ere badituelako. Aurkaria ere ez da nolanhikoa izango, Iberdrola Ligan lehiatzen duenaren bigarren taldea delako.

1. Maila Nazionalean jokatzen duen Mek Eibarko gizonetzkoen lehen taldeak, bestalde, ilusioz eta anbizioz ekingo dio denboraldi berriari, "funtsezko jokalariekin indartu delako, talde lehiakorragoa egin eta igoera fasea jokatzeo aukera ematen duten postuengatik borrokatzeo prest dagoena" osatzeraino. Fitxaketen artean, Valentziako Mislatan denboraldi bikaina egin ondoren datorren Garikoitz, Trapagarenetik datorren Oier Arriola elgoibartarra eta Basauritik datorren Jon atezaina nabarmendu daitezke.

Hala ere, taldeak ez du Liga hasiera erraza izango, etxetik kanpo Zaragozan jokatu behar duelako, talde aragoiarra goiko postuetan egoteko faborito nagusietako bat izanik: Asobal ligan aritutako jokalariek ditu Zaragozak, atzerriko errefortzuekin batera. Eibartarrek, baina, denboraldiaurre ona egin dute eta, Euskadiko Koparen barruan jokatutako hiru partidutik, bi irabazi dituzte, Hondarribia eta Olagarrori, Tolosarekin galdu eta gero.



## Mikel Mujika eta Arrate Gutierrez nagusi 29. Simon Aldazabal-en

41 atleta izan genituen parte-hartzaile aurreko domeka goizean, Arrateko jaietako Kofradiaren eguneko egitarauaren barruan jokatutako 29. Simon Aldazabal igoeran, tartean bi emakumezko. Mikel Mujika nagusitu zen gizonetzkoetan, 27

minutu eta 15 segundobehar izanda proba amaitzeko, eta minutu erdi atera zion Jon Uriarte bigarrenari eta 39 segundo Pablo Zabala hirugarrenari. Emakumezkoetan Arrate Gutierrezek 40 minutu eta 19 segundo behar izan zituen, eta Nora Martinez bigarrenak 45'23"ko denbora egin zuen.

Junior onena Ugaitz Gartzia izan zen (sailkapan orokorreko 6.

postuan), 40 urtetik gorako lehen sailkatua Farid Idrissi (5. postuan), 50etik gorakoa Iñaki Egizabal (10.a), 60tik gorakoa Juan Alday (14.a) eta 70 urtetik goragoko lehen sailkatua Saturnino Olmo izan zen (33. postuan helmugaratu zen). Bestalde, Urkizutik pasatzerakoan lasterketako buru izateagatik, Markel Gutierrezek eta Nora Martinezek jaso zituzten txuleta biak.

1- Mikel Mujika	27' 15"	22- Markel Gutierrez	34' 10"
2- Jon Uriarte	27' 45"	23- Antonio Alonso	34' 53"
3- Pablo Zabala	27' 54"	24- Markel Sanc	34' 55"
4- Alex Urzua	28' 10"	25- Viki Alby	35' 02"
5- Farid Idrissi	28' 38"	26- Igor Agurrendi	35' 44"
6- Ugaitz Gartzia	29' 07"	27- Pablo Egizabal	36' 07"
7- Mikel Anola	29' 22"	28- J. Carlos Garcia	36' 12"
8- Auler Urzua	30' 48"	29- Aitor Oiarzabal	36' 30"
9- Martin Egizabal	31' 28"	30- Mikel Tenorio	37' 45"
10- Iñaki Egizabal	31' 28"	31- Gorka Rodriguez	39' 01"
11- Eduardo Tolan	32' 11"	32- Enrique Zalcosta	39' 10"
12- Vigo Trokatsa	32' 38"	33- Saturnino Olmo	40' 00"
13- Aritz Baraiala	32' 38"	34- Arrate Gutierrez	40' 19"
14- Juan Alby	32' 40"	35- Zigor Egia	41' 52"
15- Luis Garcia	32' 41"	36- Kepa Marquet	42' 18"
16- Vigo Doce	32' 50"	37- Ander Aguirre	42' 58"
17- Juan Plaza	32' 57"	38- Aier Tojador	45' 22"
18- David Arias	33' 05"	39- Nora Martinez	45' 23"
19- Jokin Belegui	33' 39"	40- Zigor Etxeola	45' 37"
20- Iñaki Penedo	33' 39"	41- Viki Semano	46' 00"
21- Ibon Vega	34' 00"		







Ikurren etxea. SILBIA HERNANDEZ





Emeka abeslari eibartarrak hartuko du parte Elgetako saioan.

## Urbanoa eta bertakoa, musika saio freskoa Elgetako Sagardo Egunean

Sagardo Eguna ospatuko da bihar Elgetan eta, ekoizleen azokaz, umeendako tirolinaz, Intxortako igoeraz eta patata tortilla lehiaketaz gain, kontzertuak antolatu ditu Mendi Mendia Racing taldeak Espaloia Kafe Antzokian.

Musika urbanoaren euskal eszenako izen garrantzitsuak bilduko dira bihar, 21:30etik aurrera, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Saioak goizera arte iraungo du eta sarre-rak 15 euro balioko ditu.

Izen garrantzitsuen artean eibartar bat aurkitzen dugu: Emeka. Bilbon egin den Reyes de Plaza lehiaketaren (abestien borroka, oilar borroken antzera) saioa irabazi berri du eta final nagusira sailkatu da. Eibartarrak oso gaztetatik darama rapeatzen eta poliki-po-

liki tokia egin du musika mota horren eszenan, erreferenteetako bat bihurtu arte.

Emeka North School kolektiboko parte da eta, hain zuzen ere, North Schooleko kideek ere hartuko dute parte Elgetako saioan. Debabarreneko zenbait herritako lagunek osatzen dute North School eta hemen inguruan dagoen talentuaren erakusle dira.

Musikarien artean DMT egongo da: Densok, Mutikok eta Tattak osatzen duten hirukotea. Bakarka ikusi izan ditugun arren, elkarrekin arituko dira oraingoan.

Golden 21K ere izango da Espaloia eszenatoki gainean. Azken urtean 'Buscándome', 'Escarcha' (hau Densorekin) eta 'Stussy-o' abestiak kaleratu ditu, musikari emergenteenetariko delat erakutsiz.

### Bengo eta Etxepe

Hau guztia gutxi balitz, punta-punta beste bi izen handi izango dira Elgetan: Bengo eta Etxepe.

Pop musika eta musika urbanoa uztartzen ditu Bengok. Oartzuarrrak arrakastaren bidea hartu du euskal musikaren eszenan eta horren erakusle da ikusle ugari bildu dituen Bizirik Bira. 2021an kaleratu zuen bere lehen lana, '4taupada', eta urte honen amaieran disko berria kaleratuko du. Horrela, 'Beste behin' singlea kaleratu zuen ekainean, aurrerapen gisa.

Etxepe Arrasateko lagun koadrilla bat da. Baina ez edonolako gazte koadrilla, euskal musika tradizionala trap musikarekin eta bestelako doinu urbanoekin nahastuz, gure musika eszena berriaren ikurretako bat delako. Taldea osatzen duen laukotea denbora pasatzeko hasi zen musika egiten eta gaur egun proiektu erakargarria garatu du.



## Berbetan jaialdiarekin ekingo dio mintzapraktika-programak ikasturteari

Datorren martitzenean, irailak 24, Berbetan Jaialdia hartuko du Untzagak (harmailen aldean), 17:00etan hasita 18:30era arte. Puzgarriak eta makillaje-taile-rrak izango dira txikien gozamenerako. Urtero antolatzen den jai horrekin abiatuko du ...eta kitto! Euskara Elkarateak Berbetan egitasmoaren ikasturte berria. Mintzapraktikako programak euskara praktikatzeko aukera eskaintzen du era ludiko eta naturalean. Horrez gain, haur txikiak dituzten familientzat Gurasoak Berbetan programa eskaintzen du ...eta kitto!-k, familia-



giroa eta gurasoen arteko giroa euskalduntzeko, eta etorri berrientzat, euskara ez dakitenentzat edo gure hizkuntza eta kulturara hurbildu nahi dutenentzat, berriz, Ongietorri programa antolatzen du elkarteak. Hiru egitasmoak doakoak dira eta urte osoan eman daiteke izena.



## Bertso-paper lehiaketako epea aurreratu egingo da aurten

Astebete aurreratuko du ...eta kitto! Euskara Elkarateak San Andres Bertso Paper lehiaketako lanak entregatzeko epea. Horrela, urria hasieran beharrean, irailaren 27an, barixakua, zabalduko da epea. Parte hartu nahi dutenek hilabeteko tarte izango dute horretarako, urriak 30 izango baita lanak bidaltzeko azkeneko eguna. Urtero moduan maila bi izango ditu lehiaketak, 16 urtetik beherako Eibarko ikasleena bata, eta Euskal Herri osoko 16 urtetik gorakoena bestea. Lanak ...eta kitto! Euskara Elkaratean entregatuko dira (Urkizu 11, solairuartea).



## Motibazio-saioei ekin die ...eta kitto!-k eskoletan

LHko ikasleen artean euskara sustatzeko premiatik sortu zen orain dela urte batzuk Lanbide Heziketako lan-mahaia Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak bultzatuta. Bertako partaideak dira, euskaltegiak, ikastetxeak eta ...eta kitto! Euskara Elkaratea. Ikasleen artean D eredua bultzatzeko eta, orokorrean, euskara sustatzeko hainbat ekimen antolatzen ditu mahaiak urtean zehar eta horien artean daude motibazio-saioak. Aste honetan hasi da ...eta kitto! Euskara Elkaratea euskararen erabilera areagotzeko motibazio-saio horiek eskaintzen Eibarko hainbat eskolatan, Lanbide Heziketatik hasita. Unibertsitate Laboraleko ikasleak izan dira saioak jasotzen lehenak, eta bertan izan da aste osoan Ainara Lavado ...eta kitto!-ko teknikaria. Datorren astean Armeria Eskolakoek jasoko dituzte.



## BAZKIDE zertarako?

*Harrera eta elkarbizitzarako ekintzak antolatzeko*



## Ongietorri

*Euskarara eta euskal kulturara gerturatzeko eta jatorri ezberdinetako bizilagunak elkar ezagutzeko egitasmoa da. Taldeka elkartzen dira herriko auzo desberdinetan astean behin. Sare eta harreman berriak sortzeko aukera bikaina.*

# zarelakopara

*Egin zaitez bazkide!*





## Proposamen berriak Eibarko Udal Musika Eskolan

Eibarko Udal Musika Eskolak berritasun ugarirekin hasiko du ikasturtea, aste honetan egindako aurkezpenean aurreratu dutenez. Ikasle gehiago ez ezik, eskaintza ere zabalagoa izango da aurten. Ikasturte honetarako 400 ikaslek eman dute izena, “iaz baino 40 gehiagok”. Iraide Ansorena Musika Eskolako zuzendariak esan duenez, “eskola hazten doa, bai ikasle kopuruan zein ikasgai eta proiektuetan. Lau urtetik hasita, 70-80 urtera bitarteko ikasleak ditugu. Izan ere, musika ez da gazteenentzat bakarrik, musikak onurak ekartzen ditu bizitza osoan zehar, memoria, pentsamendua, gogo-aldartea eta emozioak estimulatuz. Pertsonak konektatzen dituen hizkuntza unibertsala da, adina edozein dela ere”.

Aurtengo berritasun nagusien artean, Nerea Ariznabarreta irakasleak emango duen “Musika-tailerra +65” izenekoa dago. Honetan parte hartzeko matrikulazioa zabalik dago irailaren 20ra arte, eta oraindik plaza libre batzuk geratzen dira. Bi talde egongo dira eta klaseak astean behin izango dira, urritik aurrera: martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara; eta eguenean, 15:30etik 16:30era. Nerea Ariznabarreta irakaslea klase berri horiek ematen hasteko gogotsu dago.

### Gaita edo dultzaina jotzen ikasteko aukera

Horrekin batera bada beste berritasunik, ikasturte honetan Nafarroako gaita edo dultzaina jotzen ikasteko aukera eskaintzen hasiko dira eta. Eta, zuzendariak gaineratu duenez, erronka garrantzitsuari heldu beharko diote kurtso honetan: “30 urte eta gero, publikatu berri den Euskal Herriko musika-eskolen dekretu berria ezarri eta horrekin lanean hasi beharko dugulako”.



## Gaur hasiko du denboraldi berria Musika Bandak

Udako etenaldia eta gero, Eibarko Musika Banda bueltan da, kaleko kontzertuekin. Lehen emanaldia gaur izango da, 19:30ean Toribio Etxebarria kalean (euria eginez gero, udaletxeko arkupeetan egingo lukete). Andoni Vazquez Santos zuzendariak esan digunez, “kurtsoa hasteko indar handiko kontzertuarekin gatzoz”. Swing eta jazz munduetako abestiak joko dituzte, doinu latinoekin uztartuz, eta sei kantuko programa prestatu dute: *Glen Miller Medley* (N. Iwai), *Benny Goodman* (P. Murtha), *Desafinado* (A. C. Jobim), *At The Mambo In* (M. Bauza), *Spain* (C. Corea) eta *Jitterbug* (R. Buckley).



## Carmen Palomeroren erakusketa berria Portalean

*Mnemósine* izenburupean, Carmen Palomero Contreras artistak (La Gallega, Burgos, 1957) erakusketa zabalduko du gaur, 19:00etan Portalean. Bertan 1994. urtetik 2024. urtera bitartean egindako lanetatik aukeratu dituen hainbat obra ikusi ahaliko dira. Erakusketa urriaren 20ra arte egongo da ikusgai, 18:30etik 20:30era, martitzenetik domekara bitartean. Teknika Grafikoetan (1994) eta Pinturan (1998) lizentziatua, argazkigintza eta zeramika ere ikasi zituen artistak. Horrez gain, 1999an doktoretza-ikastaroak egin zituen.





## Lasala konpainiaren “Shine” dantza-ikuskizuna Coliseon

Judith Argomaniz koreografo eta dantzariak zuzentzen duen Lasala konpainiak “Shine” izenburuko ikuskizuna aurkeztuko du gaur Eibarren, 20:00etan Coliseo antzokian. Fernando Epelde, Puy Barral eta Judith Argomanizen dramaturgiarekin, eszenatoki gainean Garazi Etxaburu, Leire Otamendi, Jone Amezaga, Seth Buckley, Ioar Labat, Puy Barral, Angela Arrieta eta Mikel Casal dantzariak arituko dira. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoren Laguna txartelarekin).



## Bertso-saio musikatua hartuko du Errebal Plazak

Azken urteotan ohitura bilakatu zaigun bertso-saio musikatua antolatu dute Lanku kultur zerbitzukoek, Hankamotxak bertso eskolarekin eta Udalarekin elkarlanean. Saioa datorren barixakuan (hilak 27) izango da, 22:00etan Errebal Plazan, eta lau bertsolari arituko dira: Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Beñat Gaztelumendi eta Josune Aramendi. Gai-jartzailea Aimar Karrika izango da, eta musikariak, berriz, Garikoitz Otamendi eta Ixak Arruti. Sarrera doan izango da.



## Iker Aranberrik irabazi du poesiako Xabier Lete saria

'Baden Verboten' (debekatuta dago bainatzea esan nahi du, alemanez) izeneko bildumarekin irabazi du Iker Aranberri eibartarrak Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Xabier Lete Nazioarteko Poesia Saria. Lan irabazlearen egileak 12.000 euro jasoko ditu, eta bere poesia-lana argitara emango dute poesia argitalpenean “ospe handia” duen argitaletxe batean. Epaimahaiak lanaren “heldutasun poetiko harrigarria” nabarmendu du, “bai edukiari dagokionez, bai egiturari, iruditeriari eta hizkuntzari dagokienez”. Azaldutakoaren arabera, “askotariko gaiak landu ditu, eta nahiz eta hasieran iruditu elkarren arteko loturarik ez duten testuz osatua dagoela, osotasun bakar eta trinko bat osatzen dute guztien artean”. Saria banatzeko ekitaldia martxoaren 21ean, Poesiaren Nazioarteko Egunean, egingo dute. (Argazkia: *Baxi Ubeda*).



## Bazkideen erakusketa kolektiboa zabalduko dute gaur Topalekuan

Arrate Kultur Elkarteak bazkideen erakusketa kolektiboa zabalduko du gaur, 19:00etan Topalekuan. Urtero bezala, elkarteko bazkideen orotariko artelanak ikusi ahalko dira bertan, urriaren 6ra arte. Horrez gain, irailaren 30ean (astelehena) euskal kanta tradizionalak ikasteko saioekin hasiko dira berriro, 19:00etan elkarteko lokaletan.



**AURKITU 7 EZBERDINTASUNAK**



**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

		4					9
7						2	
				6	2	5	8
		3	8				6
4							2
	8					5	3
8	1	9	4				
		7					6
2						1	

P	S	I	R	Z	C	S	O	Z
P	R	A	L	I	S	Z	T	P
P	E	T	I	R	A	S	T	R
L	I	B	E	L	L	A	T	R
C	I	R	R	C	H	E	R	R
S	B	R	P	R	E	L	V	A
R	T	P	A	R	A	S	A	
S	O	L	V	A	R	A		

soluzioa

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

			4	2	3		
	3	7		8			2
			3				9
	4						1
3	8				5		9
						6	
4	7			3			
8			2		1	5	
		2	9	4			

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

soluzioa

C	R	P	I	S	Z	C	S	O	Z
P	O	L	I	S	Z	T	P		
P	E	T	I	R	A	S	T	R	
C	I	R	R	C	H	E	R	R	
S	B	R	P	R	E	L	V	A	
R	T	P	A	R	A	S	A		
S	O	L	V	A	R	A			
C	R	P	I	S	Z	C	S	O	Z

# Irailak 20 / 26

## BARIXAKUA 20

### DENDAK KALEAN

**10:00/20:00** Braderie-Dendak kalean.  
**17:00/19:00** Haurrentzako tailerrak Errebal Plazan (Zorionak Ludoteka) eta Untzaga (Adarabar).

### INAUGURAZIOA

**19:00** "Mnemósine", Carmen Palomeroren erakusketaren inaugurazioa. Portalea (erakusketa aretoa).

### INAUGURAZIOA

**19:00** Arrate Kultur Elkarteo bazkideen erakusketa kolektiboaren inaugurazioa. Topalekua.

### MUSIKA

**19:30** Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Toribio Etxebarria kalea.



### DANTZA

**20:00** "Shine", Lasala Dantza konpainiaren ikuskizuna. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



## ZAPATUA 21

### BIZIKLETA AZOKA

**10:00/14:00** Bigarren eskuko bizikleten azoka eta konponketa tailerra. Untzaga.



### BIEN APARECIDA AMA BIRJINAREN JAIAK

**12:00** intxopotea, Kantabriako produktuekin. Kantabriako Etxearen Jardiñetako tabernan eta Ipuruako bolatokian.  
**18:00** Igel-toka txapelketa, bazkideentzat.  
**20:30** Afari-piskolabisa, bazkide eta lagunentzat. Ipuruako bolatokia.

## DOMEKA 22

### MUGIKORTASUNAREN ASTEA

**17:00/19:30** Bide-heziketa zirkuitua eta ginkana (5-12 urteko haurrentzat), Eibarko Klub Deportiboaren eskutik. Untzaga (euria egiten badu, Errebal Plazan).



## EGUAZTENA 25

### HITZALDIA

**19:00** Barizeei buruzko informazio-jardunaldia, Varitek-eko profesionalen eskutik. Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).



## EGUENA 26

### ODOL-EMATEA

**16:50/20:50** Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatutako etxea.



### HITZALDIA

**17:00** Kontsumitzailearen Udal Bulegoaren hitzaldia (argindar- eta gas-kontratuak, iruzurrak, "ate hotzeko" salmenta... Beheko Tokian).

### TOPAKETA

**18:00/19:30** Euskaraldia ON! topaketa, akekide eta euskaltzaleentzat. Coliseo antzokia.

### HITZALDIA

**18:30** "Duintasunez hiltzeko eskubidea. Aurretiazko borondateak", Duintasunez Hiltzeko Eskubidea Euskadi elkartearen eskutik. Antolatzailea: Agurtzen-Ikasten. Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).

## ERAKUSKETAK

### Urriaren 6ra arte:

- **ARRATE KULTUR ELKARTEKO** bazkideen erakusketa kolektiboa. (Topalekua).

### Urriaren 20ra arte:

- **"MNEMÓSINE"**, Carmen Palomeroren artelanak. (Portalea).

### Urriaren 20ra arte:

- **"MUSEOKO ERTZ ZORROTZAK"** (Armagintzaren Museoa)

## Eskualdeko Agenda

### DEBA

**20an (BARIXAKUA)**  
**Umorezko ikuskizuna**  
**20:00** Kultur Elkarte  
Antton Telleria

### ERMUA

**20an (BARIXAKUA)**  
**Kontzertua**  
**20:30** Ermua Antzokia  
**Mr. Kilombo**  
**21ean (ZAPATUA)**  
**Antzerkia**  
**20:00** Lobiano Kulturgunea  
**"Fue en abril"**  
**(Teatro sin tierra)**  
**22an (DOMEKA)**  
**Erakustaldia**  
**11:00** Orbe plaza  
**Ibilgailu klasikoak**

### ELGOIBAR

**21ean (ZAPATUA)**  
**DJ Masterclass**  
**11:00** Gaztelekua  
**Dantz-Point / Alternative**  
**Elektronikoaren Jaialdia**  
**18:00** Azkue auzoa  
**22an (DOMEKA)**  
**Bertso-saioa**  
**17:00** Herriko Antzokia  
**Gipuzkoako Bertso Txapelketako kanporaketa**



## ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- 21ean: 19:45, 22:30
- 22an: 20:00
- 23an: 19:30

**"Reinas"**  
DRAMA



2024/Peru/104'  
Zuzendaria: Klaudia Reynicke  
Aktoreak: Abril Gjurinovic,  
Luana Vega, Gonzalo Molina  
90. urteak/Nerabezaroa

## 2 ARETOA

- 21ean: 17:00, 19:45, 22:30
- 22an: 17:00, 20:00
- 23an: 19:30

**"Un desastre para siempre"**  
KOMEDIA



2024/AEB/100'  
Zuzendaria: Roger Kumble  
Aktoreak: Virginia Gardner,  
Dylan Sprouse, Libe Barer  
Erromantzea/Sekuela/Ezteiak

## ANTZOKIA

- 21ean: 17:00, 19:45, 22:30
- 22an: 17:00 (1. Aretoa), 20:00
- 23an: 19:30

**"Isla perdida"**  
THRILLERRA



2024/Espainia/128'  
Zuzendaria: Fernando Trueba  
Aktoreak: Matt Dillon, Aida  
Folch, Juan Pablo Urrego  
Drama/Erromantzea/Neo-noir

## ANTZOKIA

- 21ean: 17:00
- 22an: 17:00

**"Mi amigo el pingüino"**  
DRAMA



2024/AEB/98'  
Zuzendaria: David Schurmann  
Aktoreak: Jean Reno, Adriana  
Barraza, Rocio Hernandez  
Gertatutakoan oinarrituta



## eskolara buelta!

# elite

ISASI kalea, 29

BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK  
KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA

EQUIPAMIENTO DE OFICINAS 943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es

Eskola-materiala,  
papertegia, motxilak,  
idazmahaiak, aulkiak...

# B

## ERBETAN JAIALDIA

Irailak 24

ASTEARTEA

UNTZAGAN

17:00-18:30



Puzgarriak, tailerrak...





943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko dira **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **NOA**, gaur 5 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, zure anai-xa Luka eta Gaizka eta Alaitz zure lehengusu-lehengusiñen partez.



Zorionak, **ELENE**, atzo 5 urte bete zenuz eta! Besarkada haundi bat danon eta, bereziki, Ikerren partez. Segi holan.



Zorionak, **IRENE!!** Gaur 6 urte egitten dozuz eta. Asko maite zaittugu!!



Zorionak, **LUKE**, domekan 10 urte potolo egingo dozuz eta! Patxo eta besarkada infinito, polittori!



Zorionak, **JOSE JAVIER** eta **MARIJE**, hiltaren 22xan 40 urte beteko dozuezelako ezkondu ziñaziela. Famelixa osuaren partez.

• tartak  
• enkarguak  
• etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK

*enkariguak etxera*

**LORADENDA**  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

leku berri bat Ego-Gain, 2  
943 558728

**TOPA-LEKU**  
*laberna*  
egunero elkarrekin egoteko

**LaManouche**  
GITARRA KLASEAK

Zure hastapena errespetatuko dugu zure maila etxeraren inguruetako talde musikari profesionalak 6 urte talde orkestra dantzarrekin batera. Taldeak Loroan eta NCTan, berriz, beste 6 urteko gonbea musikaritzaren erakunde, berrikuntza edo taldeak.

Herrikoia, erromantikoa, teknikoa, taldeko musikak, interpretazioak, ulertzea erakunde eta erakunde bakoituak.

C/ Juan Gascas, 3 TEL: 633665077  
e-mail: jpeletero@gmail.com

**ek!**

Zure publikitatea herriko aldizkarian

**688 621 535**  
publizitatea@etakitto.eus

# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Etxea alokagai Eibar erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. 643233843.
- Pisia alokagai Jardinetan, goiko parkinetik gertu. 2 logela, komuna, sukaldia eta egongela beheko suarekin. Gas naturala. Ortua jartzeko lur sailtxoa. Eguzkitsua eta bista ederrak. 750 hilean. 651678454/658723275.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da kudeaketa administratiboan edo arreta sozio-sanitarioan lan egiteko. 624121726.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632768653.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632844780.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Esperientzia. 602490595.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. 643085598.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 642885605.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko arratsaldean. 665733162.
- Emakumea eskaintzen da bulegoak, etxeak eta obrak garbitzeko. 638421827.
- Neska eskaintzen da denetari-ko lanak egiteko. 747452460.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. 602051567.
- Andereño euskalduna umeak zaintzeko eskaintzen da. Goiz eta eguerdian. Urteetako esperientzia. 628933542.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako eta sukaldelaguntza bezala. Autoarekin. 646351853.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita gauz ere. 679912841.
- Neska eskaintzen da etxeak eta pegorak garbitzeko. Orduka. Urteetako esperientzia. 620757528. Arrate.
- Gizonezkoa eskaintzen da pintore lanak egiteko Eibarren eta Ermuan. Baita beste batzuekin lan egiteko ere. Urteetako esperientzia. 634155697. Javi.
- Lanetarako eskua duen gizonezkoa eskaintzen da nagusiak gauz zaintzeko eta bestelakoetarako. 692808337.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632642320.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 643085244.
- Neska eskaintzen da goizez umeak eta nagusiak zaintzeko, garbiketa-lanetarako edo jendeaurrean lan egiteko (dendak...). Esperientzia. 688624667.

## 4.2. Langile bila

- Emakumea behar da etxeko zereginak egiteko. Ezinbestekoa: autoa eta soziosanitario agiria. 688670009.
- Sukaldari euskalduna behar da urritik aurrera Eibarko Klub Deportiboak martxan jarriko duen jatetxerako. 665726146 (Iñaki) eta 943201904 (Klub Deportiboa).
- Kamarera/o behar da irailera-ko. 627778980.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Gitarra klaseak ematen dira, banaka edo taldeka: harmonia, erritmoa, teknikak, inprobisazioa... la 10 urteko esperientzia. 633585077. La Manouche.
- Ingeleseko klaseak ematen dira. Maila guztiak. 699522514.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.








# IRAZABAL

---

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizenziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, implantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrigo Unibertsitate Kompletuenza.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutua, Bartzelona.**  
Etengabeke Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)